



**Akta 5/2018**

**OSATEK, S.A. SOZIETATE PUBLIKOAREN ADMINISTRAZIO KONTSEILUAREN AKTA, 2018KO ABENDUAREN 3AN EGINA**

Lehendakariak deituta, Administrazio Kontseiluak bilkura berezia egin du, Lakua II eraikinean, Donostia-San Sebastián kalean, 01010 Vitoria-Gasteizen, R1 beheko solairuko gelan, 2018ko abenduaren 3ko 15:00etan, arratsaldeko 15:00etan. Honako kideak agertu dira eta gai zerrenda hau izan da:

**BERTARATUAK:**

**LEHENDAKARIA**

Ignacio J. Berraondo Zabalegui jauna

**BOKALAK**

María Jesús Gemma Múgica Anduaga

Andoni Arcelay Salazar

Ibon Etxeberria Olañeta

Hauek ezin etorria adierazi dute eta Administrazio Kontseiluko lehendakariarengan utzi dute botoa: Lide Amilibia Bergaretxe, Susana López Altuna eta Alberto Alberdi Larizgoitia. Halaber, ez du etortzerik izan Fernando Aguirre de Miguelek.

Ibon Etxeberria Olañeta idazkari gisa aritu da Kontseiluko idazkariaren ordez, bera baita kiderik gazteena, eta hala jasotzen da OSATEK S.A. Sozietate Publikoaren Estatutuetako 13.2 artikuluan.

Era berean, bilkurara joan da, hitzarekin baina botorik gabe, Josu Xabier Llano Hernaiz, OSATEK, S.A.ko zuzendari-gerentea.

**GAI-ZERRENDIA:**

1. Aurreko bilkurako akta irakurri eta onestea, hala badagokio.
2. OSATEKen euskararen erabilera normalizatzeko lehen plana (2018-2022) eta 2018 eta 2019 urteetarako kudeaketa-plana (aurreikusitako ekintzak) onartzea.
3. Galde-eskeak.

Ondoren, OSATEKeko zuzendari gerenteak, Josu Xabier Llanok, hartu du hitza, gai-zerrendako gaiak lantzeko:

**1. Aurreko bilkurako akta irakurri eta onestea, hala badagokio.**

Aurreko bilkurako akta irakurri eta aho batez onartu da.

## 2. OSATEKen euskararen erabilera normalizatzeko lehen plana (2018-2022) eta 2018 eta 2019 urteetarako kudeaketa-plana (aurreikusitako ekintzak) onartzea.

OSATEKen euskararen erabilera normalizatzeko lehen planean jasotako alderdiak azaldu ditu zuzendari gerenteak. Azaldu bezala, aurkeztutako plana Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak VI. plangintzaldirako ezarritako irizpide orokorren arabera idatzi da (2018-2022), eta Bikain Hizkuntza Kudeaketaren Kalitate-ziurtagiriaren Erreferentzia Marko Estandarrarekin lerrotatuta dago, maiatzaren 30eko 162/2017 Dekretuaren bidez arautua.

Planaren idazketan ere kontuan hartu dira hauak: OSATEKen 2017an egindako aurretiazko diagnostikoa, OSATEKeko paziente eta profesionalak 2016an eta 2017an egindako gogobetetasun-inkesten emaitzak eta OSATEKeko Administrazio Kontseiluaren 2018ko ekainaren 21eko akordioan ezarritakoa.

Plana bi ardatz nagusitan egituratu da: euskara zerbitzu-hizkuntza gisa eta euskara lan-hizkuntza gisa. Horietako bakoitzak hainbat azpiosagai ditu.

Ondorengo eztabaidan, bereziki aipatzen dira plana ezartzeko eta planaren ekintzen jarraipena eta ebaluazioa egiteko beharrezkoak diren baliabideak.

Azkenik, Kudeaketa Planaren proposamena azaldu eta eztabaidatu da. Plan horrek 2018ko azken zatian eta 2019. urtean aurreikusitako ekintzak biltzen ditu.

Azaldutako gaiari buruz eztabaidatu ondoren, aho batez onartu da OSATEKen euskararen erabilera normalizatzeko lehen plana (2018-2022) eta Kudeaketa Plana (2018-2019).

## 3. Galde-eskeak


Beste aztergairik ez dagoenez, bilera 16:00etan amaitu da, eta hurrengo deialdia egin da.

IDAZKARIA



Sinatua: Ibon Etxeberria Olañeta

LEHENDAKARIA



Sinatua: Ignacio J. Berraondo Zabalegui